



2. GAIA: ERREGAI LIKIDOAK

AUTOEBALUAZIOA II (ENUNTZIATUAK)

Maite de Blas Martín
Aitziber Iriondo Hernández
Blanca M^a Caballero Iglesias

Bilboko Ingeniaritza Eskola
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumen Ingeniaritza

AUTOEBALUAZIOA II

Adierazi zein den erantzun zuzena:

II.1. Jatorri fosileko erregai likidoak:

- a) *Guztiak petroliotik eratorritakoak dira: gasolina, kerosenoa, gasolioa eta fuel-olioa.*
- b) *Petroliotik zein ikatzetik lortzen dira. Petrolioa eta ikatza landare-eta animalia-hondakinen transformaziotik lortzen dira milioika urteetan zehar gertatzen den prozesuaren bidez.*
- c) *Biomasatik edo landare materiatik lortzen dira.*

II.2. Erregai likidoen ezaugarri orokorrei dagokienez:

- a) *API dentsitateak, tenperatura jakinean, erregai likido batek uretan flotatzen duen adierazten du. Dentsitatea <10 °API bada erregaiak uretan flotatzen du.*
- b) *Inflamazio-puntua erregaiak lurrin nahikoak askatzen dituen tenperatura da, zeinean errekontza iraunaraztea posiblea den gar osagarri baten laguntzarik gabe.*
- c) *Likido baten biskositatea tenperaturaren araberakoa da.*

AUTOEBALUAZIOA II

II.3. Erregai likidoen espezifikazioei dagokienez:

- a) *Oktano-zenbakiak gasolinen ahalmen antidetonatzailea adierazten du. Research Oktano-zenbakiak (RON) gasolina komertzialen oktanajea adierazten du eta haren balioa, gutxienez, 85,0 izan behar da.*
- b) *Zetano zenbakiak gasolioa motorrean injektatzen denetik haren pizketa gertatzen den arte igarotzen den denbora adierazten du. Laborategia determinatzen da, saiakuntza erraz baten bidez.*
- c) *Kerosenoaren espezifikazioetatik garrantzitsuenetako bat izozte-puntua da. Izan ere, tenperatura txikietan izozketari zor zaizkion buxadurak saihestu behar dira.*

AUTOEBALUAZIOA II

II.4. *Merkantzia arriskutsuen soltean/zisternan motatako errepideko garraioa panel laranja baten bidez seinaleztatzen da, aurreko eta atzeko partean, eta panel honek ez du identifikaziorik eramaten.*

- a) Bai.
- b) Baldin eta.
- c) Ez.

II.5. *Itsas-garraioari dagokionez, aurkezten dituen abantailen artean, bat da:*

- a) *Merkantzia kantitate handiak garraiatzea baimentzen duela.*
- b) *Garraio-maiztasun oso onak aurkezten dituela.*
- c) *Azpiegitura espezifikoak behar ez dituela.*

AUTOEBALUAZIOA II

- II.6.** *“Onshore” hodi batean, “offshore” hodi batekin alderaturik:*
- a) *Sortutako tentsioak handiagoak dira.*
 - b) *Ez da flotazioa ematen eraikitzen den bitartean.*
 - c) *Prestakuntza espezifikoak duten profesionalak behar dira konponketa- eta mantentze-lanetarako.*
- II.7.** *Polibideak dira garraiatzen dituztenak:*
- a) *“Branche”-tan amaitutako produktu bakarra.*
 - b) *Produktu desberdinak beraien artean nahasketa sortzen ez duelarik.*
 - c) *Produktu amaitu desberdinak sekuentzia espezifiko batean.*
- II.8.** *Hidrokarburoen, likido zein gaseosoen, biltegiatzeak:*
- a) *Biltegiatuko den materiaren aurretratamendua saihesten du.*
 - b) *Tratamendu-instalazioetako malgutasuna murrizten du.*
 - c) *Horniketaren etenaldia eragozten du.*

AUTOEBALUAZIOA II

II.9. *Pantaila mugikorra duen sabai finko tanke batean, sabai finkoa aurkezten duen batekin alderatuta:*

- a) Bero sarrerek sortzen dituzten lurrunketak eragindako galerak txikiagoak dira.*
- b) Berezko pantaila dela eta, fabrikazio-tolerantziak handiagoak dira.*
- c) Nahaste lehergarriak sortzeko arriskua handiagoa da.*

II.10. *Erretentzio-kubeto bat/batek:*

- a) Erregaien lurpeko zein itsasoko karga eta deskarga baimentzen du.*
- b) Biltegiratze-estrategiko mota bat da.*
- c) Ontzi estanko bat da, bere helburua egon daitezkeen isuriak batzea izanik.*